



1.- GAUR EGUNERA ARTEKO BILAKAERA.-

1.1.- HOBETZEARI BURUZKO LEGEAREN AITZIN.-

Esan beharra dago, euskara, Nafarroan, galera prozesuan murgilduta dagoela betidanik. Kanpoko (erdararen indarra eta balioa, batez ere) eta barruko ("autogorrotoa", euskara = etxeko eta lagunarteko hizkera soilik,...) eraginak batu dira euskararen kalterako. Hala ere, Gerratearen ostean ekimen batzuk sortu ziren euskararen galera geldiarazteko. Horien artean honako hauek:

40. hamarkadan: "Diario de Navarra"ren "Napar Izkuntza" orria (astero).

1956: Diputazioaren "Vianako Printzea" Erakundearen barnean Euskara Sustatzeko Atalaren sorkuntza.

1963: Iruñeko lehendabiziko ikastola (Irantzu)

1964: "Fontes Linguae Vasconum" aldizkaria.

1967: Nafarroako Diputazioaren agindua, eskola-ordutik kanpo egunero euskarazko ordu erdiko klasea ematea zilegiztatuz.

60. hamarkadaren amaiera: gaueskola batzuk sortzen dira.

1970: Diputazioaren erabakia, Eskolaurre eta O.H.O.ko ikastetxe elebidunak sortu eta diruz laguntzeko.

1973: FORU BERRIA: "Nafarrek testamendua euskaraz egiten ahalko dute".

1976: Euskarazko Katedraren sorkuntza O.H.O.ko Irakaslegoaren Eskola Unibertsitarioan.

1980: Nafarroako Parlamentuaren Agerpena:



"Lehendabizikoa: gaztelania eta euskara izanen dira Nafarroako hizkuntzak ofizialak.

Bigarrena: Printzipio hori Nafarroako Foru Eraentza Berreskuratu eta Hobetzeari buruzko oinarriari gehituko zaie, baita Foru Parlamentuaren eskumen osoa ere Lege baten bidez arautu ahal izateko" (Dakigunez, gero Agerpen hau ez zuten kontutan hartu)

Ondorio gisa azken historian zahar errepikatzen diren bi ezaugarri ikusten ditugu: batetik, ekimen ofizialak "borondate ona"ren mundutik datoz eta ez da, inoiz, hizkuntza politika bat planteatu; bestetik, ekimen sozialak oinarrizkoak suertatu eta suertatzen dira euskararen garapenerako.

1.2.- "EUSKARA HOBETZEARI BURUZKO LEGEA "(1982).-

"Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza honen irakaskuntza ordenatuko du" (9. Art.).

Lege honetan aipatzen da, lehendabiziko aldiz Nafarroan, euskararen ofizialtasuna (betebehar eta ondorio guztiekin).

Estatuko beste legeetan gertatzen den bezala, euskara ez da berekitzat hartzen eta, horrez gain, ofizialtasuna geroko arau baterako uzten du.





Hala ere, legearen bereizgarriak berezkoena lurraldetasunari lotutako ofizialtasun partziala dugu, horixe izanen baita geroan, garapen araua gauzatzerakoan, Nafarroako aniztasun soziolinguistikoari tratamendu malgu bat aplikatzeko eragozpen nagusia.

1.3.- "EUSKARARI BURUZKO FORU LEGEA" (1986).-

Ezagunak dira lege honen edukiak eta ezaugarriak. Horregatik, berezitasun batzuk besterik ez ditugu aipatuko:

- Legearen oinarrizko helburuak:

"Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko trenak zehaztea.

Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

Euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea, borondezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki, guzti hau Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera".

- Hiru hizkuntza-eskualde (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna) ezartzen dira. Eskualdeen arabera antolatzen dira eskubideak Administrazioetan, irakaskuntzan eta komunikabideetan.





- Estatu osoko azken hizkuntza legea da.
- Ez da kontzentzu legerik.
- Ez du botu nazionalista bat ere alde.
- Oinarri lege bat baino, behin-behineko lege bat ematen du, arazo zehatz batzuei (bereziki hezkuntza arlokoiei) lege ingurumari bat emateko egina.
- Eskualdekatzeak norberaren eskubideak lurralde eskubide bilakatzen ditu.
- Haren anbiguotasunetik heldu da arau bidezko garapen gogor baten beharra Nafarroako Gobernuaren aldetik, Legeak agindutakoa gauzatu eta dituen hutsuneak beteko badira.
- Legeak "erabilpen normala" eta " Nafarroan euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea" aipatzen baditu ere (1. Art.), oro har, atxiki edo kontserbatzeko xedea nabarmentzen da, hizkuntza normalkuntzarako prozesua abiaraztekoa baino areago gehiago azpimarkatzen duelarik atzerako prozesua geldiarazi beharra prozesu hori bihurtzea baino.



- Oroimen historikoa ezabatu egiten da: ez dira kontutan hartzen politika konpentsagarria oinarritzen duen diskriminazio edota axolagabekeria historikoa ezta normalkuntza legeek ezarri ohi duten diskriminazio positiboa ere.

- Ondorioz, Nafarroako Parlamentuak euskara arautzearen abiapuntua egoera normal bat balitz bezala jokutzen du.

- Euskara normalduaren aldeko apustua egiten du eta Euskaltzaindiaren autoritatea aitortzen da.

- Haatik, gaur egun hamar urte beranduago, Lege hau murrizta izan bada ere, euskararen normalizatorako baliagarria izan da, hezkuntza maila batez ere, eta ia garatu gabe jarraitzen du (bakarrik Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzua sortu dira, baina oraindik ez da martxan jarri plangintza bat euskara normalkuntzarako administrazioan zein gizartean).





2.- EGUNGO EGOERA.-

2.1.- DATU DEMOLINGUISTIKOAK.-

(1991. urteko erroldaren arabera. 2 urtetik gorago biztanleria)

	EDUKIA	Z. EUSKALD	.Z. MISTOAZ.	ERDALD.	OSOTARA
euskararen ezagupena.	53.646	268.255		178.349	500.250
euskaldunak:					
alfabetatuak	15.965	12.102		1.207	29.324
ia-alfabetatuak	11.156	2.519		199	13.874
alfabet.-gabe	5.645	2.075		229	7.949
ia-euskaldunak:					
alfabetatuak	1.940	8.784		1.513	12.237
alfabet.-gabe	2.293	4.771		795	7.859
pasiboak	2.120	8.575		905	11.600
erdaldunak:	14.527	229.429		173.451	417.407





ama-hizkuntza.

euskara	29.732	7.934	685	38.351
gaztelera	20.119	250.487	176.441	447.047
biak	3.438	5.951	612	10.001
beste	357	3.883	611	4.851

etxeko hizkuntza.

euskara	22.251	4.151	289	26.691
gaztelera	23.052	255.612	177.340	456.004
biak	8.202	7.390	539	16.131
beste	141	1.102	181	1.424





2.2.- EUSKARAREN JARRAIPENA II.

Euskal herriko Soziolinguistikazko Inkesta (1996).-

(Oharra: 15 urtetik goragoko biztanleria kontutan hartzen da).

AMA-HIZKUNTZA.

Lehen Hizkuntza

	Kop.	%
Guztira	: 437.000	100,0
Euskara	: 36.400	8,3
Biak	: 8.000	1,8
Erdara	: 392.800	89,8

16 urtetik gorako biztanleria soilik kontutan hartuta, Nafarroan azken urteotan euskarak lehen hizkuntza bezala etengabe jasan izan zuen galera gelditu egin dela antzematen da.



Gainera, galera gelditu ezezik, euskararen bidezko transmisioa nabarmen gehitu dela esan daiteke.

Lehen hizkuntza adin-taldean arabera (%)

	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24	3-15	Guzt.
Euskara	11	9	9	6	6	8	8
Biak	2	4	1	2	1	4	2
Erdara	87	87	90	92	93	88	90

Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Aitak eta amak euskaraz zekiten kasuetan %72k euskara transmititu die seme-alabei lehen hizkuntza gisa, eta % 11k euskara eta erdara aldi berean.

Euskararen transmisioan ia ez da galerarik antzematen. Gainera, galera hau ikusgarri gutxitu da guraesoetako batek dakienean bakarrik: %72tik %20ra jaitsi da Nafarroan.

HIZKUNTZA-BILAKAERA.

Nafarroan zertxobait dira euskara galdu dutenak, 11.500 lagun (%2,6), euskara ikasi dutenak baino, 9.200 (%2,1).





Gazteen artean euskararen galera desagertzen ari da eta inkorporazioak nabarmen hazi dira: 64 urte gorakoen artean galerak % 3,3koak dira eta 16-24 urte artekoen kasuan galerak %0,6ra jaisten dira; inkorporazioak, berriz, %0,3tik %4,2ra hazi dira.

HIZKUNTZA-GAITASUNA.

	Kopurua	%
Euskaldun elebakarrak:	1.100	0,2
Elebidunak:	41.000	9,4
euskal elebidunak:	13.400	32,7
elebidun orekatuak:	11.800	28,9
erdal elebidunak:	15.800	38,4
Elebidun hartzaileak:	42.800	9,8
Erdaldun elebakarrak:	352.300	80,6



Adinaren arabera, Nafarroan gora egin dute elebidunek eta elebidun hartzaileek gazteen artean: elebidunak %9 dira 25 urtetik gorakoen artean eta %11 heltzen dira 16-24 urte dituztenen artean. Elebidun hartzaileak %4 besterik ez dira 50 urtetik gorakoen artean eta adin horretatik beherakoen artean %14an egonkortzen dira. Erdaldun elebakarrak %86 dira 50 urtetik gorakoen artean eta %77 adin horretatik beherakoen artean.

Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (%).

	Guzt.	16-24	25-34	35-49	50-64	>=65
Euskald. Eleb.	0	0	0	0	0	1
Elebidunak	9	11	9	9	9	9
Eleb. Hartzail.	10	12	14	14	5	3
Erdal. Elebak.	81	77	77	77	86	87

NORTASUNA ETA EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA.

Nafarroan gehiago dira bere burua espainoltzat soilik dutenak bere burua (%35), euskal herritar eta espainoltzat dutenak baino (%33). Honez gain, bostetik batek baino zertxobait gehiagok (%23) euskal herritartzat soilik hartzen du bere burua.





Benetan euskal herritarra izateko euskaraz hitz egiten jakin behar den galdetu denean, baieztapen honekin %36a ados dago eta %48a, kontra. Euskaldunen artean, %81ak konforme daude eta erdaldunen artean %51a ez daude konforme baieztapen horrekin.

Euskara sustatzeari buruzko jarrera (%).


Oso aldekoa13
Aldekoa25
Berdin30
Aurkakoa22
Oso aurkakoa . .	.10

EUSKARAREN ERABILERA.

Oharra: hemendik aurrera, euskaldunak soilik hartuko dira aintzat, hau da, **euskaldun elebakarrak** eta **elebidunak**. Horrenbestez, elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak azterketaz kanpo geratuko dira.





Euskararen erabilera eremu desberdinetan (%).





1 Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera (%)

NAFARROA



Etxeko euskararen erabilera, guztiek edo ia guztiek dakitenean euskara, adinaren arabera (%)


NAFARROA





Lagunarteko erabilera, adinaren arabera (%).

NAFARROA



Laburpen gisa, euskararen erabilerrari dagokionez, euskara hezkuntza sisteman barne hartzeari esker oso gehikuntza nabarmena izan du elebidunen portzentaiak. Hala ere, ezagutzaren gehikuntzak ez du oraindik ere erabilerraren gehikuntzarik eragin; alabaina, gazteenen artean moteldu egin da azken urteotan erabilerran gertatzen ari zen beherakada. Familian ez da inolako gehikuntzarik antzematen euskararen erabilerran, elebidun gazteenen gurasoek erdaldun izaten jarraitzen dute eta.



2.3.- EGOERA FUNTZIONALA.-

ADMINISTRAZIOETAN:

Nafarroako Administrazioetan ez dago Hizkuntza Plangintza bat. Horregatik, euskalduntzearen helburuak, betebeharrak, pausoak, hizkuntza eskakizunak, etab... zehaztu gabe daude.

Langileei erraztasunak ematen zaizkie (klaseak dohainik eta ordu kopuru erdia edo bi heren Administrazioak ematen ditu) euskara ikasteko.

135/1994 Foru Dekretuak euskararen erabilera arautzen du. Horretan hizkuntz normalizaziorako zerbitzu zentralak eta Administrazio-zirkuitu elebidunak aipatzen dira.

Estatuko Administrazioak oraindik, ez du euskara kontutan hartzen. Udal administrazioak, berriz, eta Ereku Euskaldunean batez ere, badu Hizkuntza Plangintza bat eta urtero birmoldatzen da, beharren eta errealitatearen arabera.

IRAKASKUNTZA:

- Euskarazko irakaskuntza (D eta B ereduak), Nafarroako % 15a da. A ereduak, % 8a. Kopurua azken urteotan ia ez da aldatu baina bai portzentaia.





D ereduaren portzentaiak hauek dira: Eskolaurrea % 25a, Lehen Hezkuntza % 16a eta Bigarren Hezkuntza % 8a.

- Unibertsitateetan euskararen presentzia erabat testimoniala da:

UNED: Filología española: euskara aukerako gaia.

PRIBATUA: Filologia: Euskal Filologiaz aukerako gaiak.

PUBLIKOAN: Gai solte batzuk.

- Helduen irakaskuntza: Euskarak duen egoerak ez du euskara ikasteko gogoak eta beharrak sentiarazten. Hala ere, urtero 8.000 pertsona inguru izena ematen dute euskaltegietan. Haien artean, 3.804 euskalduntzen, 203 alfabetatzen eta 175 EGA titulua ateratzeko (1992-93 ikasturteko datuak, Gobernutik hartuta).

LAN-MUNDUA:

Betidanik, nekazarien munduan ondo gordeta izan da euskara. Lantegiak eta zerbitzuak, berriz, erdal-guneak izaten dira: etorkinez gain, erdara izan ohi da lantegi eta zerbitzuen hizkuntza.

Euskararen ezaguera eta erabilpena indartzeko ez dago, orain arte, ezta enpresa bat interesaturik, publikoa nahiz pribatua.





1991ean, Nafarroako sindikatuek, Nafarroako Gobernuak eta AEK erakundeek itun bat sinatu zuten langileek euskara ikasteko eta komenioetan euskararen presentzia bermatzeko, jarraipen-batzorde bat osatuz. Urte hartan, 150 langilek parte hartu zuten.

Itun hori urtero eraberritzen da.

KOMUNIKABIDEAK:

Telebistak: Nafarroan zehar badaude 40 errepikagailu ETB ikusi ahal izateko, legez kanpo eta ekimen sozialaren eraginaz.

1996.eko urrian, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak akordio bat sinatu zuten egoera legez-tatzeko. Baina Gobernu berriak bere borondatea azaldu du martxan ez jartzeko.

TVE-k egunero berri laburpen bat emititzen du (5' inguru) bakarrik.

Irratiak: Lizentziarik gabe, badaude bost euskal-irradi: Euskalerrria Irratia (Iruña eta Iruñerria), Xorroxin Irratia (Baztan, Malerreka eta Bortzirriak), Aralar Irratia (Larraun), Irati Irratia (Aezkoa) eta Karrape Irratia (Leitza). Euskadi Irratia leku askotan entzuten da.

Beste irradi pribatu zein publikoetan, ez dago euskarazko saiirik.





Prentsa: EUSKALDUNEN EGUNKARIAk Nafarroan 3.000 ale inguru saltzen ditu. ARGIA aldizkariak 400 bat harpidedun ditu.

Eskualdeko prentsa alorrean indartsu agertzen da TTIPI-TTAPA (hamabostekaria, 6.300 ale banatzen ditu, dohainik, Malerreka, Baztan Bortziriak, Leitza eta Goizueta). Horrekin batera MAILOPE (Araitz-Betelu), PULUNPE (Basaburua-Imotz), GUAIXE, LAISTERKAN eta AIAUPENIK (Sakana), eta beste batzuk elebitan kaleratzen dira: ALDIZKARIA (Iruñerria), EPERBIDE (Antsoain), EL TUTO (Agoitz), MURUGARREN (Gares).

GIZARTE ZERBITZUAK:

Gizarte bateko bizitza sozialaren erabilera linguistikoa gizarte zerbitzuek markatzen dute. Bakarrik erlijio eta irakaskuntzako zerbitzuak bermatuak daudela esan daiteke.

Kulturgintzan, aisialdian eta kirolean ekintza ugari antolatzen dira. Hala ta guztiz ere, ez dugu "normalkuntza" somatzen: gehienetan erdaraz antolatzen dira eta, gainera, beste batzuk euskaraz, Euskara Zerbitzuetatik antolatuta.





2.4.- ONDORIOAK.-

Nafarroako egoera soziolinguistikoa hobeto ezagutzeko, Bonaparte (1860-70), Irigarai (1935), Sánchez Carrión (1972), Elgoibar eta beste (1987), Ramos (1995) eta Vilches-Cosín (1995) egileen ikerlanak aztertu behar da. Balio ezberdin izanik, euskararen galera Nafarroan erakusten digute.

Etengabe ari da barreiatzen erdararen esparrua, prozesu honetan faktore hauek oso eraginkorrak izanik: administrazioen esparruak, merkatuak, industriguneak eta errepide nagusiak (bidegurutzeetan batez ere).

Historian zehar, euskarak funtzio berriak ez eskuratzeak euskararen galera ekarri zuela esan dezakegu.

1986ko errolda eta 1991eko zentzuan, arazo kontzeptual eta metodologikoez gain, emaitza hauek azaltzen zaizkigu:

euskararen galera ez da eten oraindik bertako euskara gordetzen duen eskualdeetan. Honekin batera Nafarroa osoan zehar barreiatzen ari da, Iruñerrian, Lizarraldean eta Tafallan batez ere. euskaldunen kopurua gorantz joaten da, irakaskuntzari esker. Halere, oraindik ez dugu funtzio sozialen galera eten eta mantsoki ari gara berreskuratzen. euskarak balio sinboliko handia du eta euskararekiko "militantzia" piztuta mantentzen da.





"Euskararen balore komunikatiboa ez da mintzatzeko gaitasunarekin bakarrik ziurtatzen. Euskarak balore komunikatiboa izanen du baldin eta bizitzaren arlo ezberdinetan komunikatzeko balioa badu. Hau da, ezagutzatik erabiltzenera, egoera demolinguistikotik egoera funtzionalera jauzi egin behar dugu" (Ramos, 145 or.)





3.- ETORKIZUNERAKO URRATSAK.-

Euskararen egoera soziala bizkortu da, baina honek ez du bere giza--presentzia indartu, bere egitura edo sare propioa sortu baizik kasurik hoberenetan. Honekin batera, euskara ez da prestigiodun esparru gehienetan sartu modu normal batean: unibertsitatea, goi mailako ikuskizun eta kirolak, politikagintza, pentsamendua, sormenak, etab... Euskara erabiltzeko aukerak txikiak dira eta euskaldunek oso zaila dute behar duten maila lortzea.

"Euskaldunen egituratze faltak, euskaldunen kopuru eskasiari gehituta, euskararen normalizazioan aurrera joateko gutxienezko baldintzen azpitik gaudela pentsarazten digu. Euskal gutxiengoak babes neurri bereziak eta erabatekoak behar ditu. Tamalez, gaur egun ez da horrelakorik gertatzen. Euskara dagoen egoera txarretik normalizazioraino eraman nahi bada, egoera funtzionala benetan hobetu behar da, honek egoera demolinguistikoaren hobekuntza ekar dezan" (Ramos, 146 or.).

Egoera honi aurre egiteko, esparru ezberdinetako neurri hauek proposatzen ditugu:

OROKORRAK:

- Ez da lotu behar euskararen etorkizuna egitasmo politikoekin. Horregatik, *abertzale*, *euskaltzale* eta *euskaldun* kontzeptu eta errealitateak esparru ezberdinetan kokatu behar dira.



- Nafarroako egoera politikoa kontutan hartuz, badirudi ez dagoela borondaterik, Gobernuaren alde-tik, Normalizaziorako Plangintza bat jorrazteko. Honen ondorioz, hiru norabidetan ahaleginak garatu behar dira:

Politika mailan, posibilismo osoz esparru guztietan jokatu behar da, ahalik eta funtzio gehienetan euskararen presentzia indartzeko.

Udal eta Eskualdeetan, Normalizaziorako Plangintzak aurrera eraman behar dira.

Gizarte mailan, hiritarrok gure eskubideak defendatu behar ditugu. Euskararen aldeko erakundeek indarrak batu behar dituzte eragin handiagoa izateko.

ADMINISTRAZIOETAN:

Administrazioak berebiziko zerikusia du normalizazio bidean, nola bere barne funtzionamenduan hala gizarteko irudian: gizarteko norabideen ardatz jo daitekeen heinean (hizkuntzari dagokionez), Administrazioaren baitan euskararen erabilpenak eragin nabarmena du gizartean. Hau kontutan izanik burutu dira eskaera hauek:

Gizartean, beharrezkoak diren kanpaina guztiak egin eta egiten lagundu behar du Administrazioak: transmisiorako, erabilpenerako, etab... hau guztia euskara gizartera dadin. Arlo honetan, motibazioaren garrantziaz jabeturik, horretara bideratuko liratekeen inizatibak bultzatu beharko du.





Iruña, nafarren hiriburua, elebiduna izango da, bertan Nafarroako biztanle guztion eskubide guztiak bermatzeko.

Administrazio elebiduna lortu arte, hiritar euskaldunentzako sare euskaldunak martxan jarriko dira. Udalerrietan euskararen aldeko ordenantzak idatzi eta aplikatu, onartzen diren legeak betetzeko posibilitatea bermatuz.

Herritarrekiko harremanak eta komunikazioa ziurtatzeko, hala nola barne funtzionamendua euskalduntzeko, Administrazioek eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten Entrepresak plangintza bat eratuko dute.

Lan-eskaintza publikoetan euskara betebeharrak edo merezimendu dela aipatuko da, Euskararen Legea betetzeko.

IRAKASKUNTZA:

- Euskararen Legea aldatu beharko da:

Zonalde ez-Euskalduna ezabatzeko.

hartzaindegietatik unibertsitatetara ikasketak euskaraz egiteko aukera emateko.

Administrazioak zonalde bakoitzeko berezitasun eta beharrak kontutan izango ditu eskaintzak aurkezterakoan.

- Beharren arabera, euskal ikastetxeak eta ikastetxe elebidunak Administrazioak bultzatuko ditu.





- Ikastetxe euskaldunak kokatzeko, eragin-erradioa kontutan hartuko duen plangintza Nafarroa osoan zehar eratuko da.

- Euskarazko lerroetan talde txikiagoak onartu beharko dira, Zonalde bakoitzean ikasle-ratioak zehaztuz. Honi dagokionez, euskaraz hezi nahi duen orori erraztasunak eskaini behar zaizkio, bizi den lekutik ahalik eta gertuen ikastetxea irekiz.

- Euskararen ikasketari aurrerapausoak ematen laguntzeko, baldintza pedagogikoak hobetuko dira: baliabide didaktikoak, unitate teknikoak, langilego euskalduna, irakasleen euskalduntze eskubidea, birtzi-klaia, etab... Kalitatezko hezkuntza eta euskara horrela uztartuko genituzke .

- Euskaltegien zabalkundea gizarte zerbitzu bat da. Gizartearen eskaerari aurre egiteko, Administrazioak bere euskaltegiak zabalduko ditu eta behar diren laguntza guztiak eskainiko dizkie lan horretan iharduten duten erakundeei.

LAN MUNDUA:

Administrazioak laguntzak mantenduko ditu langileek euskara ikasi ahal izateko eta enpresek elebitan iharduteko.



KOMUNIKABIDEAK:

- Administrazioak irrati euskaldun bat jarriko du martxan Nafarroa osorako eta udal eta eskualdeko komunikabideak lagunduko ditu.
- Irrati euskaldunak legeztatuko dira, gizartean duten eraginagatik eta euskara sendotu asmoz.
- ETBren harrera sare publikoaren barnean txertatuko da. TVE-n euskararen programazioa bermatu behar da. *Tele Pamplonak* laguntzak jasoko ditu euskara sartu ahal izateko.
- Euskal prentsarako laguntzak ziurtatuko dira eta komunikabide guztietan euskararen presentzia suspertuko da.
- Komunikazioarekin zerikusia duten beste kultur adierazpenetan (zinea, antzerkia, argitarapenak, bideoak, musika, iragarkiak, etab.), euskarak presentzia orekatua izan beharko luke.

GIZARTE ZERBITZUAK:

- Kirola, aisialdia eta kultura euskaraz jasotzeko herritarren eskubidea ziurtatuko da, Administrazioek beren eskaintza kulturean euskarekiko tratamendu orekatua emanez, eta eskaintza pribatuan euskararen erabilpena bultzatuz eta dirulagunduz.



4.- BIBLIOGRAFIA.-

- AA. AA., **Euskara Nafarroan**, in *JAKIN 56 zkia.*, Donostia 1990.
- AA. AA., **Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)**, Pamiela, Iruña 1987.
- AA. AA., **Herri-Administrazioen Hizkuntz Plangintza**, HAE, Oñati 1988.
- AA. AA., **Iruña eta euskara**, Iruñeko Udala, Iruña 1996.
- AIZPURUA X., **Euskararen jarraipena**, E. Jaurilaritza, Gasteiz 1995.
- COBREROS E., **El régimen jurídico de la oficialidad del euskara**, HAE, Oñati 1989.
- ESPARZA A. eta CHUECA P., **Planificación lingüística en la Administración Foral y Local de Navarra**, in *Revista Vasca de Administración Pública nº 44*, Oñati 1996.
- IRIGARAY A., **Noticia del estado lingüístico de Navarra**, in *EUSKERA*, 1. Zkia. 1956, 41-46 orr.
- IRIGARAY J.A., **Euskara bizitzaren kenka. Orekaren mintzoa**, Pamiela, Iruña 1988.
- LARREA J.M., **Euskaldungoa erroizturik**, Pamiela, Iruña 1994.
- MONREAL, G., **La oficialidad del euskara en Navarra**, in COBREROS E. (Bateragilea), *Euskararen Lege-araubideari buruzko jardunaldiak*, HAE, Gasteiz 1990.
- PAGOLA R.M., **Euskararen egoera soziala eta ofiziala Nafarroan (1984)**, in *EUSKERA*, 1985 51-60 orr.
- SANCHEZ CARRIÓN J.M., **El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo)**, Nafarroako Gobernua, Iruña 1972.
- VILCHES C. eta COSÍN J., **Euskara Nafarroan zertan den**, Nafarroako Gobernua, Iruña 1995.
- ZABALETA F., **Euskara Nafarroan (1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolingüistikoak)**, Iruña 1995.

